

Polizia Foralek 21.000 euroko aparteko ordainzaria jasoko dute Azaroan

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 25/10/2023

Nafarroako Gobernuak onartu zuen atzo gobernu bilkuran 23,3 milioi euro emango dizkiela 1.100 polizia foralei.

Nafarroako Gobernuak Foruzaingoaren ordutegiei, lanaldiei eta ordainsariei buruzko araudia onartu du atzoko gobernu bilkuran. Erregelamendua aplikatzeko guztizko kostua 23,2 milioi eurokoa da, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako atzeraeragina baitu, 2018ko Polizien Legearen garapenean oinarrituta. Nafarroako Autonomia Erkidegoko 1.100 polizia foralei eragiten die neurriak, eta, batez beste, 21.000 euro jasoko dituzte ordainketa bakarrean azaroan.

2024rako 7,4 milioi euroko gastua izango da, eta zifra hori ekitaldi bakoitzean dagozkion funtzionarioen eguneratzeekin igo ahal da. Atzoko Gobernu Bilkuran onartutako kreditu handitzeari esker, eragileek azaroko nominan jasoko dute aparteko ordainzaria. Era berean ordainsari honek ez ditu kontuan hartzen beste ordainsari batzuk, hala nola bidaiengatiko kalte-ordainak edo lanaldi arruntetik kanpo egindako orduen konpentsazioa.

<https://eh.lahaine.org/polizia-foralek-21-000-euroko>